**TTIPI TTAPA fundazioari egindako donazioek**

# Jakoba Errekondok ireki du Lekarozen Nafarroako sagardotegietako txotx denboraldia

Ttipi-Ttapa.Xorroxin 2020-01-20 10:00



Jakoba Errekondo, txotxeko lehen sagardoa dastatzeko prest, Lekarozko Larraldea sagardotegiko Jesus Angel Gartziak irekitako kupelean. Argazkia: Juan Mari Ondikol

**Ilbeltzaren 17an Larraldean egin zen irekiera-ekitaldia**

Jakoba Errekondo ezagunak ireki du aurtengoan Nafarroako sagardotegietako txotx denboraldia, Lekarozko Larraldean ilbeltzaren 17an egindako ekitaldian. Sagardoa egiteko natura eta jakinduria uztartu behar direla oroitarazi ondotik ireki zuen lehen kupela. Lekarozko Larraldearekin batera, Lesakako Linddurrenborda, Berueteko Behetxonea, Aldazko Martitxonea eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegiek osatzen dute Dolarea, Nafarroako Sagardotegien Elkartea eta aurten 250.000 litro inguru kupeleratu dituzte.

Larraldea sagardotegian 40.000 litro sagardo egin dituzte modu ekologikoan eta Jesus Angel Gartziak aipatu zuenez, «aurtengo sagar guztia gurea eta Goizueta aldetik ekarritakoa da, kontent gaude, dena behar bezala joan delako». Lesakako Linddurrenborda sagardotegian, berriz, 25.000 bat litro egin dituztela aipatu zuen Juan Mari Lopezek, «dena Lesaka, Oiartzun eta Lezo aldeko sagarrarekin egina».

Ortziraleko irekiera ekitaldian sagar-dantza ere eskaini zuten Jo ala jo taldekoek eta Nafarroako kirol eta kultur munduko hainbat ezagun izan ziren.

BAZTAN

## Erlazionatuak

Sagar-dantza dantzatu zuten Jo ala Jo taldekoek

**Jakoba Errekondok ireki du Larraldean txotx denboraldia**

Xorroxin irratia urt 20 Baztan Lekaroz





## [Dolarea elkarteak Lekarozko Larraldea sagardotegian egin du txotx sasoiaren hasmenta ekitaldia]

Xorroxin irratia urt 17 [Baztan]

Jakoba Errekondo izan da aurtengo sagardo berria jendartean dastatzen lehena.

TTIPI-TTAPA da Nafarroa Garaiko mendialdean dagoen euskarazko hamaboskari bakarra, eta zu bezalako irakurleen babesa behar du aitzinera egiteko.

Izan zaitez harpidedun

Erantzun


Mendialdeko Independentzia Eguna eginen dute martxoaren 14an Leitzan


Aranoko inauteriak otsailaren 15ean ospatuko dituzte


Aritz Alundak eta Gorka Urtasunek irabazi dute Euskal Herriko lehen mailako paxaka txapelketa


Sahararen aldeko elkarretaratzea Elizondon otsailaren 28an

# Ikusienak



### [Beran gizon bat atxilotu dute bart gauean, N-121-A errepidean trafikoa mozten saiatzeagatik]

Ttipi-Ttapa ots 09, 18:30 [Bortziriak Bera]



### [Sute batek kalte handiak eragin ditu bart arratsean Elbeteko etxe batean]

Ttipi-Ttapa ots 09, 18:47 [Baztan Elbete]



### [Giro eta umore ederra Arantzako inauterietan]

Ttipi-Ttapa ots 10, 11:30 [Bortziriak Arantza]



### [Ehun lagun baino gehiago bildu dituzte asteburuan Lesakan egindako auzo-bilerek]

Ttipi-Ttapa ots 10, 14:00 [Bortziriak Lesaka]



### [Izpegiko Bereko Benta azalberritu dute]

Xorroxin irratia ots 10, 10:55 [Baztan Erratzu]



### [Donamarian ere inauteriak ospatu dituzte]

Ttipi-Ttapa ots 10, 16:00 [Malerreka Donamaria]

**ERRAN.EUS / TTIPI-TTAPA**
Koskontako bidea, 07 - 1 | 31770 LESAKA (Nafarroa)
Tel: 948 63 54 58
Xorroxin irratia - Elizondo - T. 948581226
Xorroxin irratia - Lesaka - T. 948638288

Codesyntaxek garatua



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

mecna

TOKIKOM

Gertuko informazioa, euskaraz